

# izan

Proposamena  
**Pertsona** izaten hezteko  
zortzi ikaskuntza

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena.</b>	<b>4</b>
<b>1. Diagnostikoa.</b>	<b>6</b>
1.1. Atariko zenbait galdera.	6
1.2. Bi erantzun problematiko eta proposamen bat.	8
·Heziketa-baliabideen eta -eskarien sakabanaketa eta desordena.	8
·Agintza-pedagogiaren nagusitasuna eta urritasuna.	8
<b>2. Helburuak.</b>	<b>10</b>
2.1. Helburu nagusiak: hausnarketari laguntzea.	10
2.2. Berriazko helburuak: esperientzia bat sustatzea.	10
2.3. Espero dugun emaitza: erreferentzia-eremu bat sortzea.	11
<b>3. Kontzeptu-edukia.</b>	<b>11</b>
3.1. Zer da <i>pertsona izatea</i> .	11
3.2. Zortzi ikaskuntzen eduki laburtua.	13
·Oinarrizko lau ikaskuntza.	13
1. Gizakion izaera mugatuaren ikaskuntza.	13
2. Esker onaren ikaskuntza.	14
3. Kontzientziari entzuteko ikaskuntza.	14
4. Giza duintasunaren ikaskuntza.	15
·Hiru ikaskuntza instrumental.	15
5. Elkarrizketaren <i>plusaren</i> ikaskuntza.	15
6. Enpatiaren <i>plusaren</i> ikaskuntza.	16
7. Pazientiaren <i>plusaren</i> ikaskuntza.	16
·Funtsezko ikaskuntza bat.	17
8. Maitasunaren ikaskuntza.	17

3.3. Zergatik ikaskuntza hauek, eta ez beste batzuk.	17
·Argitzen dute.	18
·Gainerakoak sortzen dituzte.	18
·Partekagarriak dira.	18
·Iraunkorrak dira.	18
·Orokorrak eta zehatzak dira.	18
<b>4. Izan Proposamenaren eduki materiala.</b>	<b>18</b>
4.1. Izan Proposamenaren egitura orokorra eta taldea.	18
·Esparru teorikoa.	18
·Aplikazio praktikoak.	19
·Erredakzio-taldea.	19
4.2. Euskarri materialak.	19
·Aurkezpen-koadernoak.	19
·Pertsona izaten hezi liburua.	19
·CDa edo web gunea.	19
4.3. Izan Proposamenaren eragiketa-ezaugarriak.	20
·Programazioa.	20
·Ikasturte bakoitzerako prozesua eta materiala.	21
·Adibide bat.	21
·Izan Proposamenaren aplikazio orokorreko eskema.	21
·Izan Proposamenaren dinamizazioa.	22
<b>5. Izan Proposamenaren ezaugarri bereziak.</b>	<b>23</b>
5.1. Ez da aurrez prestatutako platera.	23
5.2. Lehenbizi, bizi egin behar da sustatu nahi den hori.	24
5.3. Ez da aplikazio programaturako bakarrik.	24
5.4. Azken batean, «%50eko hitzarmena» behar du.	24

## Aurkezpena

Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa) sortu zen Baketik, 2006ko urrian, eta «Gatazken lantze etikoa» gaiari buruzko ikastaro-saio bat izan zuen lehenbiziko jarduna. Urtebeteren buruan, 3.000 bat lagunek hartu zuten parte ikastaroetan; beraz, harrera ona zela ikusirik eta ikastaro gehiagoren eskaria ere iristen zitzaigunez, programaren bigarren zati bat prestatu genuen, lehenbizikoaren jarraipen gisara. Hala, bada, «Zeurekin eta besteekin bizitzea. Oinarrizko lau ikaskuntza» ikastaroa eratu genuen. Hasierako bi ikastaro haien ondoren, gehiago ere egin ditugu, eta guztiek izan dute harrera ona eta partaide ugari.

2010eko udaberrira arte, 6.000 bat lagunek hartu zuten parte ikastaroetan. Lehenbizikoaren eduki teorikoak *Ser humano en los conflictos* (2006. Ed. Alianza) liburua zuen oinarri; bigarrenak, berriz, *Vivir y convivir. Cuatro aprendizajes básicos* (2008. Ed. Alianza). Lehenbiziko bi ikastaro haiek ez ziren berariaz hezkuntza-alorrerako prestatuak: helduentzako ikastaroak ziren, bizitzaz, elkarbizitzaz, gatazkez, hazkuntza pertsonalaz edo heziketaz arduratzen den edonorentzako modukoak.

Dena den, irakaskuntza izan da, hasieratik, ikastaroetan partaide gehien izan duen lanbideetako bat, eta irakasle askok eskatu digute proposamen hauek ikastetxeetara hedatzeko. Horixe izan da, hain justu ere, geure asmoetako bat lehenbiziko egunetik. Hainbat esperientzia antolatu ditugu eskoletan eta klaustroetan, baita ikastaro mistoak ere, hau da, irakasleak, ikasleak eta gurasoak partaide direla. Positiboa izan da emaitza, eta ondorioztatu dugu hobetzea bada-goela hezkuntza-alorrera berariaz egokituz gero. Bestalde, hasieratik ari da eskaintzen Baketik ikastetxeei lan espezifikoko bat zinemaren eta Antzerki-Forumaren tresnen bidez (azkena aipatutako jarduera horretan, 12.000 bat ikasle hartu dute parte lau urte hauetan).

Aurrekari horiekin, bada, 2008ko amaiera aldera ekin genion proiektu hau eratzeari. Urte eta erdi eman dugu lanean, hezkuntzako profesional-talde baten zuzeneko laguntzarekin. Azkenik, hemen duzue materiala. Azpimarra dezagun, lehenik eta behin, hezkuntza-eremutik etortitako berariazko eskari bat duela sorburu materialak, baina ez dela eskoletarako, irakasleentzako bakarrik egina. Eskolako, familiako edo gizarteko elkarreraginetan diharduen eta hobetzeko asmoa duen edonorentzat da; ez da, beraz, hezkuntzako espezialistentzat edo langileentzat bakarrik sortutako materiala.

Azpimarratu nahi dugun bigarren alderdia da proposamen bat dela, irekia, beste eragile batzuekiko lanak eta iritzi-alderaketak dakartzan ekarri berriak eta iradokizunak gustura hartuko dituen. Orain hasi behar dugun, eta ibilbidea eta helmuga zehazteke dituen, bide honen abiapuntua besterik ez da.

Izan Proposamena jarri diogu izena abiapuntu honi, eta gehigarri deskribatzaile bat erantsi diogu: «Pertsona izaten hezteko zortzi ikaskuntza». Izenburuak berak adierazten dizkigu, beraz, proposamenaren helburua eta edukia. Haren espirituari jarraiki, beste izen hau ere jar geniezaiokeen: «Lehenbizi lehenbizikoa proposamena». Izan ere, gauza asko eskatzen zaizkio hezkuntzari, baina bada bat beste guztien aurretik jarri beharrekoa: pertsona *izaten* ikastea eta heztea. Hori da proposamen honen xedea: lehenbizi, lehenbizikoa (*izaten* heztea). Edukiari dagokionez, berriz, zortzi ikaskuntza eskaintzen ditu, helburu hori ardatz dutela, eta guztiek dute alderdi praktikoa eta teorikoa, eta eginkizun bikoitza: geure burua eta besteak heztea.

Bere oinarria, edukia eta xedea pertsona izateko ikaskuntzan kokatzen duenez, Izan Proposamena gaitasunen hezkuntza bultzatzeko Europako korronteari egindako ekarria da. Delors txostenak bere garaian lau zutabe nagusi aipatu zituen: ikasten ikastea, egitea, elkarrekin bizitzea eta izatea. Ondoren, Europako Batzordeak, LOE-k moldaketaren batekin jaso dituen, funtsezko zortzi gaitasunak definitu zituen. Izan Proposamena premisa pedagogikoa da hiru eremutan: pertsonaren garapena, harremana eta elkarreragina, eta adierazpena eta komunikazioa.

Honakoak dira Izan Proposamenaren sarrerako gakoak eta honakoa bere aurkezpen-txostena. Bere xedea edukien zergatia, helburua, mamia eta nolakotasuna deskribatzea, testuingurua jartzea da. Zortzi ikaskuntzen alde teorikoa, berriz, *Pertsona izaten hezi. Zortzi ikaskuntza* (2010. Baketik argit.) liburuan duzue; iradokizun praktikoa, CDan eta Baketik-en web gunean.

Heziketa-proposamen hau jendaurrean azalduta, itxaropenik handiena du Baketik-ek, eta, aldi berean, apaltasunik apalena. Proposamen hau ekarri positibo bilakatzea eta eskola-, familia-, hezitzaile-sare bat sortzea (probatzeko prest dagoen jendea elkartzea, alegia) espero dugu, hala diosku itxaropenak; apaltasunak diosku, berriz, pozik behar ginatkeela Izan Proposamena abiarazteko prest diren partaide bakan batzuk biltzen baditu sare honek.

# 1. Diagnostikoa

Proposamen honen diagnostikoak azaltzen du haren zergatia. Geure inguruko hezkuntza-aren egoera aztertuta atzeman dugun defizita murriztea du helburu proposamen honek. Galderak eta erantzunak aztertuz deskribatzen dugu defizit hori, eta guztien erdian Izan Proposamena jartzen dugu. Hasteko, zenbait galdera egiten ditugu, funtsezkoak; ondoren, hezkuntzak galdera horiei nola erantzuten dien aztertzen dugu, zenbait gabezia aurkitzen ditugu, eta alternatibak proposatzen.

## 1.1. Atariko zenbait galdera

Pertsona batek beste bati matematika, hizkuntzaren, lanbideren edota kirolen bat irakatsi behar badio, gutxi gorabehera bada ere, imajina dezakegu zer jakin behar duen horretarako. Diziplina horietarako araututako edukiak ikasi eta barneratu beharko ditu, horiek ulertzeko eta transmititzeko. Baina erantzuna ez da horren argia, baldin eta horrelako galderak egiten badizkiogu geure buruari: zer jakin behar dugu pertsona izaten hezteko? Zer ikasi behar da bakeko, bizikidetzako, justiziako, giza eskubideen, adiskidetzako, errespetuko, berdintasuneko eta abarreko oinarrietan hezteko? Edota zer ikasi behar da elkarrizketako, laguntzako, eskuzabaltasuneko, lantaldeko eta abarreko oinarrietan hezteko? Edota zer zailtasunari, bakardadeari, sufrimenduari, heriotzari, bizitzak duen zentzuari, laguntasunari, aitatasunari eta amatasunari, maitasunari eta abarri aurre egiteko? Erantzuna zein den ez da garbi asmatzen; baina galderak hezkuntza- eta bizitzalarloari eragiten dio nabarmen.

Ikasleengana horrelako helburuak espresuki helarazteko bada material didaktiko espezifikorik. Eskaintza zabala da, eta zabala den bezain sakabanatua dago. Azkenean sortzen zaigun galdera ez da horrenbeste hau: zeintzuk dira helburu horien inguruan hezteko eskura ditugun materialak? Ezpada beste hau: nola hezi behar da hezitzailea bera? Zehatzago esanik: nola hezi behar da pertsona izaten heztea hezkuntzaren lehentasun garrantzitsuenetarikoa delako ustea duen hezitzailea? Nabarmena da hezitzaileei buruz ari garenean, ez garela irakas-kuntzako langileez eta hezkuntzako edozein alorretako langilez bakarrik hizketan ari. Ikuspegia zabalagoa da.

Guztion ardura da; izan ere, uneren batean edo bestean, alor batean edo bestean, guztioi dagokigu hezitzaile gisa aritzea. Lanbidea dela-eta dagokigu irakasleak bagara; sena eta bo-kazioa direla-eta, seme-alabek modu etikoan bizitzea nolako garrantzitsua den barneratzea nahi duten aita-ama bagara. Edo aiton-amona, anaia-arreba edota osaba-izeba garelako dagokigu.

Geure ardurara da ogibidez gizakiarena den arloan murgildu ohi bagara: psikologia, pedagogia, gizarte-lana eta -hezkuntza eta abar. Geuri dagokigu, halaber, baldin eta lan-talderen, enpresaren edota elkarteren baten gaineko ardurara badugu. Eta geure egitekoa da komunitateari beste baliore batzuetan oinarriturik heztea proposatzen dion gizarte-erakunde bateko kideak bagara. Labur esanda: hezitzailea eskolako, familiako eta gizarteko elkarrekintzetan, hobetzeko asmoz, parte hartzen duen oro da.

«Nola hezi pertsona izaten?» galdera horrek, gainera, badu beste bat aurretik: nola hezi naiteke ni neu pertsona izaten? Ezin ninteke inolaz hezkuntzako eragile izan ikaskuntzako esperientzia hori aurretik bizi izan gabe. Haratago egin genezake, izan ere, hizpide dugun gaia ez da edonolakoa. Kontua ez da nik neuk pertsona izaten ikasteko heziketa jasotzea beste batzuei ondoren heziketa hori emateko behar dudan ezagutza funtzionala delako. Beste muturrean, gizakia izatea, gizakia izaten ikatea, nik neuk bizitzan jokatu beharreko erronka da. Arrazoiz zoriontsu bizitzeak badu zerikusirik gizakia izateak dakarzkigun mugen eta aukeren eremuan bizitza ahokatzeko gai izatearekin.

Nola hezi neure burua eta besteak pertsona izaten? Horixe da arduratzen gaituen gaia. Eta horri erantzuna emateko honako Hezkuntza-Proposamena egiten dugu Baketik-etik, Arantzazuko bake zentrotik. Pertsona izaten geure buruak eta besteak hezteko modu erabakigarrian laguntzen duten ikaskuntzako zortzi esperientzia daudelako uste osoa dugu. Horietako lau oinarritzko ikaskuntzak dira: (1) gizakiaren izaera mugatua (2) esker onaren zentzua, (3) kontzientziari entzutea eta (4) giza duintasunaren esanahia. Beste hiru ikaskuntza instrumentalak dira: (5) elkarrizketaren plusa, (6) enpatiaren plusa eta (7) pazientziaren plusa. Eta azkena funtsezko ikaskuntza da: (8) maitasunaren ikaskuntza.

Horiek denek 2010ean Baketik-ek abian jarriko duen proposamena osatzen dute: Izan Hezkuntza-Proposamena. Proposamen honen oinarrian honako ustea dago: pertsona izaten hezteko materialik aberatsena gizakiak berezkoena duen horren muinean, ariman eta bihotzean dago. Ez dira beharrezkoak ikaskuntza konplexuak, ezta asmakizun handiak ere. Barru-barruan dugu funtsezkoa. Amaigabeko ahalmena duten hezkuntzako baliabideak aurki ditzakegu geure mugetan eta geure aukeretan. Ez dugu ezer asmatuko, pertsona bakoitzari emana zaion horri argia eta indarra ematea ez den beste ezer. Ideia horren inguruan biltzen dira geure buruak eta besteak pertsona izaten hezteko zortzi ikaskuntza horiek.

## 1.2. Bi erantzun problematiko eta proposamen bat

Hezkuntza ez dago galdera horietatik kanpora; aitzitik, etengabe ari da erantzun bila. Batzuetan, asmatzen du; beste batzuetan, ez. Horrelakoak izaten dira eraikuntza-prozesu guztiak. Batetik-en iritziz, badira hezkuntza-alorrean berrikusi eta alternatibak eskaini beharreko bi erantzun problematiko: alde batetik, bizitzeko eta elkarbizitzeko heziketaren baliabideen eta eskarien sakanaketa eta desordena; bestetik, alor horretako agintza-pedagogiaren urritasuna eta nagusitasuna. Bi gai horiei buruzko hausnarketa da Izan Proposamenaren sorburua, eta haren diagnostikoaren araberak jarduten saiatuko da.

### ·Heziketa-baliabideen eta -eskarien sakanaketa eta desordena

Gizartearen eta, beraz, heziketaren (eskolakoa nahiz gizartekoa) lehentasuneko helburu hirukoitza da ahalik eta ondoena ahalik eta hobeto bizitzea, elkarbizitzea eta hezten irakastea. Familiei edo ikastetxei, adibidez, gizarteak eskatzen die bakeaz, giza eskubideez, gatazken bake bidezko konponketaz, biktimekiko elkartasunaz, genero-berdintasunaz, eskolako jazarpenaren edo arrazismoaren prebentzioaz, ingurumenarekiko sentiberatasunaz, kulturen arteko bizikidetzaz, Hirugarren Munduarekiko elkartasunaz, gizalegeaz, errespetuaz eta abarrez heziketa banatzeko. Eskolei dagokienez, asteroko tutoretza-orduan txertatu behar da hori guztia, edo ahalegin gehigarrien bidez, baina gainerako eduki-programa aldatu gabe.

Ezinezkoa da, bistakoa denez. Gainera, helburu horietako bakoitzak badu zenbait proposamen didaktiko, era askotako planteamendu ugariekin. Horietako batzuk hezkuntza-sail edo ministerioetatik datoz; beste asko, berriz, GKEetatik edota hezkuntza-alorreko beste erakunde batzuetatik. Hainbat hamarkada daramatzate geure inguruko eskolak eta hezkuntza-sistemak kezka horiei erantzun nahirik: 1970eko eta 80ko hamarkadetan bakeari, giza eskubideei, elkarbizitzari... buruzko heziketaz hitz egiten hasi zenetik, asko egin da aurrera, eta asko ari da egiten orain ere.

Alabaina, bizitzeko eta elkarbizitzeko heziketaren estrategia eta eduki didaktikoen sakanaketa eta desordena dira nagusi egungo egoera honetan. Heziketa-mota hori zeinu askoko mapa bihurtu denez, noraezean dabilta hezitzaileak: ez dakite nondik hasi, nola egin dauzkaten baliabideekin bat datorren lanik. Eskoletako egoera hori familia barruko heziketan ere sumatzen da, edo bizikidetzaz-balio berriak sustatzen dituzten pedagogia sozialetan.

Justifikazio aski du eskariak, eta hezkuntza-sistemak ase egin behar du, mundu hobea erakitzen saiatu behar du, bizitzeko eta elkarbizitzeko, gizarte eta pertsona hobek egiteko; injustiziar, zailtasunei, arazoei eta bizitzak dakarzkigun gatazka guztiei aurre egiten ikasteko... heziketa eskainiz. Baina, eskari txalogarri horrekin batera, zenbait proposamen pilatzen dira, sakanaturik, geure ikastetxeetako mahaietan, eta ez daukagu behar adina baliabide eta aukera haien garatzeko.

Eskari horren bideratzeak ordenatua, egituratua eta bideragarria izan behar du; horren premia dago. Kontua da hori guztia proiektu pedagogiko bakar batean bil ote daitekeen. Proposamen honen ustez, bai, bil daiteke. Izan Proposamenak lagundu egin nahi du zeregin horretan, helburu guztiak zortzi ikaskuntza nagusitan bilduz eta ordenatuz.

### ·Agintza-pedagogiaren nagusitasuna eta urritasuna

Bizitzeko eta elkarbizitzeko heziketaren galdera nagusiei geure hezkuntza-sistemak ematen dien erantzuna (agintza-pedagogia) problematiko da, bi arrazoirengatik: nagusitasuna eta urritasuna. Agintza-ikaskuntzak dira alor horretako proposamen didaktiko gehienak; ikasleei ahal dugun irudimen-mailarekin banatzen dizkiegun aginduak edo kontsignak dira: bakea, justizia, berdintasuna, errespetua, elkarlana, elkartasuna eta abar. Elkarrizketaren aldekoak, eskuzabalak, solidarioak, errespetuzko neska-mutilak, baketsuak, berdintasunaren aldekoak, indarkeriaren aurkakoak, zibilizatuak, arduratsuak eta abar izan behar dutela irakatsi behar diegu neska-mutikoei.

Agintza-ikaskuntzak kontsigna ideologikoak dira, nolabait, eta geure ikasleei edo seme-alabei (edo gizarteari) haiak txertatzen saiatzen gara hezitzaileok. Beharrezkoak dira, zalantzarik gabe, ikaskuntza horiek. Baina, nahikoa ote? Eragingarriak ote? Familiak, irakasleek eta abarrek diotena aintzat hartu beharra daukate ikasleek: hobe da elkarrizketaren aldekoa izatea derrigorrez ezer ezartzea baino, hobe da eskuzabala izatea berekoa baino, bakezalea indarkeriazalea baino, errespetuz jardutea diskriminatzailea baino... Neskak edo mutikoak, berriz, galdera hau egingo du, agian: «Zergatik; zeuk hala diozulako?». Hezitzaileok, berriz, etika, legitimotasuna, ondorioak edo erabilgarritasuna arrazoibide ditugula saiatu behar izaten dugu azaltzen hobe dela aukera hau hura baino. Laburbilduz, hainbat kontsigna hedatzen ditugu, eta eskura dauzkagun arrazoiekin eta estrategia didaktikoekin sendotzen ditugu.

Esaten diogunaz fidatu beharra dauka ikasleak. Askotan, konfiantza-kreditu hori eragingarria da; beste batzuetan, aldiz, ez. Dena dela, geure mezuaren hartzaileak izango ditu bere bizitzan kontrakorik pentsarazten dioten gertakizunik, baita justu kontrakoa frogatzen diotenik ere: «Hobe da, bizitzeko eta bizirauteko, berekoa, indarkeriaren zalea, diskriminatzailea eta abar izatea».

Bada modurik ikasteko hobe dela elkarrizketaren aldekoa izatea, adibidez, indarrez ezer ezartzea baino, hezitzaileek eta familiekin banatzen duten kontsigna ideologikotik landa? Uler dezake neska edo mutiko batek, bere kabuz, bere bizipenekin, bera denagatik, hobe dela indarkeriarik eza indarkeria baino, elkartasuna egoismoa baino, berdintasuna diskriminazioa baino? Baiezkoan gaude, agintza-ikaskuntzei zortzi bizipen-ikaskuntzak gehitzen badizkiegu. Horietako lau oinarritzkoak dira; hiru, instrumentalak, eta azkena, berriz, funtsezko ikaskuntzatzat jo dugu.

1. koadroa. Izan Proposamenaren eskema

## A. Bi arazoren diagnostikoa

### Agintza-ikaskuntzen sakabanaketa (1) eta inflazioa (2)

·(1) Bizitzeko eta elkarbizitzeko baliabide pedagogikoen eta eskarien sakabanaketa eta desordena.

·(2) Agintza-pedagogiaren nagusitasuna eta gutxiegitasuna: bakezalea, tolerantia... izan beharrari buruzko ikasgai, agindu edota metodo gehiegi.

## B. Proposamena

### Izan Proposamena. Zortzi bizipen-ikaskuntza

Oinarritzko lau ikaskuntza				Hiru ikaskuntza instrumental			Funtsezko ikaskuntza bat
·Geure baitan antzeman ditzakegun bizipenak dira eta aginduzko ikaskuntzen oinarri ere bai. ·Izaten, neure burua ezagutzen eta neure errealitatearen jabe izaten ikasteko ikaskuntzak dira.				·Bizitarako eta besteenganako irekieran pertsonaren plusa antzemateko giza ahalmenak dira. ·Pertsona izaten ikasteko dira norberak besteekin duen haremana dela-eta bere buruaz duen kontzientzia.			·Bizitzeko eta bizikidetzako dohaina eta giltza da. ·Aurreko guztia integratzen eta biltzen du.
<b>1.</b> Gizakiaren izaera mugatuaren ikaskuntza.	<b>2.</b> Esker onaren zentzuaren ikaskuntza.	<b>3.</b> Kontzientziari entzutearen ikaskuntza.	<b>4.</b> Giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntza.	<b>5.</b> Elkarrizketaren plusaren ikaskuntza.	<b>6.</b> Enpatiaren plusaren ikaskuntza.	<b>7.</b> Pazientiaren plusaren ikaskuntza.	<b>8.</b> Maitasunaren ikaskuntza.

Oinarrizko lau ikaskuntzak —izaera mugatuarena, esker onarena, kontzientziari entzutearena eta giza duintasunarena— geuregan aurki ditzakegun bizipenak ditugu, gainerako heziketa-aginduen oinarri. Izaten ikasteko, geure burua ezagutzeko, geure egoeraz jabetzeko ikaskuntzak dira. Hiru ikaskuntza instrumentalak —elkarrizketaren *plusa*, enpatiaren *plusa* eta pazientziaren *plusa*—, berriz, besteei eta bizitzari irekitzean gizakion *plusa* sumatzeko giza ahalmenak ditugu. Besteekiko harremanean norberaren kontzientzian pertsona nola izan jakiteko ikaskuntzak dira. Azken ikaskuntza, funtsezkoa —maitasuna— bizitzaren eta elkarbizitzaren dohaina eta ardatza dugu, goragoko balio batean biltzen baitu aipatu dugun guztia.

Bizitzarako oinarrizko zortzi ikaskuntza horiek dira agintza-ikaskuntzen oinarria, norberaren bizi-esperientziak erantzun baitakieke haien zergatiei. Bestalde, elkarrizketa inposaketa baino hobea dela norberaren baitatik ulertzen laguntzen dute, bakea gerra baino hobea, elkartasuna berekoikeria baino... «Irakasleek edo gurasoek esaten didatelako ez ezik, neuregan, neure esperientzian ere hala ikusten dudalako ulertzen dut elkarrizketa inposaketa baino hobea dela». Horra bizitzarako ikasketen helburua: erreferentzia-eremua sortzea.

Laburbilduz, agintza-ikaskuntza eta metodologia askotxo dago. Beharrezkoak dira ikaskuntza horiek, baina gehiegi, oso sakabanatuak eta eskasak eraginkortasun pedagogikoari dagokionez. Komeni da kontsigna horiek guztiak bizitzarako zortzi ikaskuntza nagusien erreferentzia-eremuan sustraitzea, gizaki bakoitzaren alderik gizatiarrenaren esperientziatik biltzeko, oinarritzeko eta justifikatzeko. Giza benetakotasunaren zortzi esperientzian laburbildu ditu Baketik-ek ikaskuntza horiek.

## 2. Helburuak

Diagnostiko horren ondorioa, zergatia, dugu Izan Proposamena. Helburuei dagokienez, bi bloketan jarri ditugu: helburu orokorrak eta berariazkoak. Ikuspegi teoriko eta praktikoko bikotza eskaintzen digute bien artean.

### 2.1. Helburu nagusiak: hausnarketari laguntzea

Helburu orokorrek zenbait helmuga finkatzen dituzte, bizitzari eta elkarbizitzari buruzko hausnarketa pertsonala eta kolektiboa sustatzeko xedearekin betiere. Hauek dituzue:

- Hausnarketa eragitea bizitzarako eta elkarbizitzarako lehentasun nagusiari buruz, mahai gainean jarriz Izan Proposamenaren tesia: *lehenbizi, pertsona izaten ikasi eta hezi*.
- Bizitzarako eta elkarbizitzarako dauden baliabide didaktikoen sakabanaketari eta desordenari buruzko kezkarekin bat egitea, eta alor horretako ikaskuntza nagusiak ordenatzea eta hierarquizatzea.
- Hezkuntzan, bizitzarako eta elkarbizitzarako agintza- eta metodologia-pedagogiekin batera, gizakion alderik bereziki eta orokorki gizatiarrena ardatz duten bizi-ikaskuntzak irakasteari buruzko hausnarketa sustatzea.
- Gizaki izaten ikastea eta heztea bizitzarako eta elkarbizitzarako lehentasuna dela uste duen hezitzaileari zer ikaskuntza teoriko eta praktikoko komeni zaizkion argitzen laguntzea.

### 2.2. Berariazko helburuak: esperientzia bat sustatzea

Esperientzia praktikoko eta zehatz bat sustatzea dute xede berariazko lau helburuek. Hauek dituzue:

- Agintza-ikaskuntzen sakabanaketa eta nagusitasuna ordenatzeko, sinplifikatzeko eta eragin-garri bihurtzeko baliabide pedagogikoak eta didaktikoak eskaintzea, bizitzarako eta elkarbizitzarako zenbait bizi-ikaskuntza funtsezkoekin.
- Pertsona izateko zereginari sakonago ekin nahi dion gizon-emakume edo talde orori baliabide teorikoak eskaintzea, Izan Proposamenaren eta haren zortzi bizi-ikaskuntzen bitartez.
- Pertsona izaten hezteko esperientziari sakonago ekin nahi dion gizon-emakume edo talde orori baliabide praktikoak eskaintzea, Izan Proposamenaren eta haren 250 jarduera-iradokizun zehatzen bidez.
- Mailakako ikuspegi batekin (gutxitik gehiagora haziz), Izan Proposamena probatzeko prest dauden eskolekin, familiekin, hezitzaileekin eta abarrekin (interesatuak eta lanerako gogoz daudenekin, alegia) sare bat osatzea.

### 2.3. Espero dugun emaitza: erreferentzia-eremu bat sortzea

Helburu orokorretatik eta berariazkoetatik landa, azal dezagun zer emaitza praktiko eta zehatz espero dugun Izan Proposamenaren aplikaziotik. Beste era batera esanda, galdera honi erantzun nahi diogu: «Zer ekarri zehatz egiten die heziketa-prozesuari eta hezitzaileari proposamen honek?». Geure iritziz lehentasunezkoa den alderdi bikoitz hau azpimarratuko dugu:

- Erreferentzia-esparru bat sortzea, bi helburu hauekin:
  - lehenbizi, ikuspegi konstruktibotik eta humanizatzailetik ekitea arazoei, zailtasunei eta gatazkei;
  - eta bigarrenik, hezitzaileak bere buruan ikus ditzakeen esperientzietan oinarritzea giza izatearen kausarik eta helbururik gorenak.
- Eskolan nahiz familian, oro har, hitz egiten ez diren edota gutxitan lantzen diren gaiei heltzeko estrategia errazak eskura izatea.

## 3. Kontzeptu-edukia

Iritsi da Izan Proposamenaren edukia deskribatzen hasteko unea. Nahitaez ekin behar diogu deskribapenari bi aldetatik: kontzeptuak, batetik; bestetik, eduki zehatza eta materiala. Atal honetan, kontzeptu-baliabideei ekingo diegu; hurrengoan, berriz, baliabide materialei. Bi zatitan banatu dugu kontzeptuen deskribapena: lehenbizi, pertsona izateaz proposamen honetan dugun iritzia; bigarrenik, zortzi ikaskuntzen edukiaren laburpena.

### 3.1. Zer da *pertsona izatea*

Behin eta berriro aipatzen dugu heziketa-proposamen honetan nola hezi pertsona izaten. Argitu dezagun zertaz ari garen. «Pertsona»ren zer esanahi hartzen dugu oinarri pertsona izaten hezteaz mintzatzean? Ez dugu «pertsona»ren definizio osorik, bukatuak, itxirik, erabatekorik eta orokorrik egiteko asmorik; aski zaigu pertsonaren ezaugarri berezietako baten formulazioa abiapuntu hartzea.

«Pertsona»ren definizioa, heziketa-proposamen honi dagokionez eta bertsiorik laburtuenean adierazia, hau duzue: hobetzeko gaitasuna duen izakia. Hona hemen definizio landuxeago bat: hobetzea eta bere bizitza berreraikitzea hautatzeko gaitasuna duen izaki biziduna, kontzientzia hartzea, bizitzari zentzua bilatzea eta maitasuna bitarteko dituela. Jakina, askoz gauza gehiago ere bada pertsona, baina definizio partzial hau haren berezitasun nagusietako bati dagokio. Gaitasun hori hartu du ardatz Izan Proposamenak: hobetzeko gai da pertsona. Definizio horren esanahiari jarraiki, bi alderdi azpimarratuko ditugu.

Hasteko, bizitzaren hobekuntzaz mintzo da, espresuki, definizio hau. Bizitzarik pertsonalari eta elkarbizitzarik sendoenari deitzen diogu «bizitza». Alde materiala ere hor sartzen da, jakina, baina zati bat bezala bakarrik, ez bizitzaren ardatz bakartzat. Bizitzak, izan ere, alde materiala eta ez-materiala ditu. Garrantzitsua deritzogu ñabardura horri, geure testuinguru kultureko joera nagusiak ez baitatoz horrekin bat. Nahastu egiten dira lehentasunak. Zoriontasuna anbizio materialak ase eta ezinegon existentziala edo espirituala ezkutatzea balitz bezala pentsatzeko eta jarduteko joera dugu. Geure definizioaren hipotesiak besterik dio: pertsona zoriontsua izateko, lehenbizi egokitu, birkokatu eta mendean hartu behar dugu anbizio materiala, bizitzaren zentzu zabalago bat bilatzeko.

Bigarrenik, definizio honek kontzientzia hartzeari, zentzua bilatzeari eta maitasunari lotzen die hobetzeko gaitasuna. Hiru aukera horiek ardatz bera dute: zabalik egotea hartzea bizitzarako jarreratzat, ez ixtea norberaren baitara, baizik eta norberaz harago irekitzea. (1) Irekitzea da kontzientzia, geure buruarekiko distantzia pixka bat hartzen laguntzen baitigu: kanpotik azter, begira, hausnar eta berregin dezakegu geure burua. (2) Irekitzea da zentzu-bilaketa, harago eta geure barruan sakonago jotzen laguntzen baitigu. (3) Irekitzea da maitasuna, geure harreman-gaitasunaren eta besteei ematearen ahalmenak azaltzen baitizkigu. Laburbilduz, definizio honek dio bizitzarekiko, besteekiko eta abarrekiko dugun irekiera- edo itxiera-mailaren arabera dela geure bizitza hobetzeko eta berregiteko geure aukera.

## 2. koadroa. «Pertsonaren» definizioa, Izan Proposamenaren arabera

<b>Definizio laburra</b>	Hobetzeko gaitasuna duen izakia.
<b>Definizio landuagoa</b>	Izaki biziduna (mugatu eta sormen mugagabekoa), kontzientzia hartzearen, zentzu-bilaketaren eta maitasunaren bidez bere bizitza hobetzeko eta berregiteko ahalmena duena.
<b>Ñabardurak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bizitza diogunean alde materiala ere sartzen da, noski, baina bizitzaren zatitzat bakarrik, ez haren ardatz bakartzat. Bizitzak, izan ere, alde materiala eta ez-materiala ditu.</li> <li>· Aipatzen ditugun ezohiko hiru gaitasunek ardatz bera dute: irekiera hartzea bizitzarako jarreratzat, norberaren baitara ez ixtea, norberagandik harago jotzea.</li> </ul>
<b>Arrazoibidea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Gizakiaren helburu nagusia da bizitzari zentzua bilatzea, zoriontasunaren euskarri izan dadin.</li> <li>· Zoriontasun errealistak une onak eta txarrak, gozamena eta gatazkak, muga eta sormena hartzen ditu aintzat.</li> <li>· Geure tesia da zoriontasun hori gizakiak ezaugarri duen hobetzeko gaitasunaren garapenari dagoela lotua.</li> <li>· Horregatik da hain garrantzitsua pertsona hobetzeko gaitasuna duen izakitzat definitzeak, horren mende baitago, hein handi batean, haren zoriontasuna.</li> </ul>

Esana dugu lehendik hobetzeko gaitasuna duen izaki biziduna dela pertsona. Zergatik da hori hain garrantzitsua? Bizitza osoan bilatzen du pertsonak zorientasun-oinarri bat emango dion zentzua. Zorientasun errealista —une onak eta txarrak, gozamina eta gatazka, muga eta sormena aintzat hartzen dituen— hobetzeko gaitasun hori erabiltzean dago, hain justu ere. Geure bizitza berregiten saiatzean kontzienteago bihurtzen gara, eta ohartzen gara zentzu-bilaketa dela pertsona mugiarazten duen zer nagusia, eta maitasuna giza osotasunaren gailurra. Horregatik da hain garrantzitsua pertsona izatearen definizioa hobetzeko gaitasunarekin lotzea, gizakiaren helburu nagusia —zorientasuna— gaitasun hori seriooki eta alaitsu garatzearen mende baitago, zuzen-zuzenean.

Proposamen honetako zortzi ikaskuntzak bat datoz egin berri dugun pertsonaren definizioarekin, horren ñabardurekin eta diagnostikoarekin. Zortzi erreferentzia hauek ere badute pertsonaren definizio orokor bat, edo horren esanahia ulertzeko modu bat, pertsonaren alderik egiazki eta espezifikoki gizatiarrean oinarritutako zortzi esperientzia baititu giltzarri.

## 3.2. Zortzi ikaskuntzen eduki laburtua

Lehenago aipatu dugunez, heziketa-proposamen honen iradokizuna da bizitzarako eta elkarbizitzarako heziketa-lana zortzi ikaskuntza nagusitan biltzea: lau, oinarritzkoak; hiru, instrumentalak, eta bat, funtsezkoa. *Pertsona izaten hezi* liburuan dago proposamenaren esparru teorikoa, eta ikaskuntza bakoitzaren garapen zabala eskaintzen du, lau epigrafe hauen bidez: zer da pertsona izatea, zer ondorio dakartza, sakon nola bizi, eta ariketa pertsonalak. Aurkezpen-koarderno honetan duzue haietako bakoitzaren laburpentxo bat.

### •Oinarritzko lau ikaskuntza

Lehenbiziko lau ikaskuntza hauek dira Izan Proposamenaren mamia. Izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasuna dira hezitzaileek, familiekin eta gizarteekin elkarrekin dizkiguten kontsignen eta aginduen balioa ikusteko hezitzaileek behar duten esperientzia pertsonala.

**1. Gizakion izaera mugatuaren ikaskuntza.** Geure izaera mugatuaren gaineko kontzientzia izanik geure buruak hezea eta besteak ere horrela hezea esan nahi du. Pertsona guztiak aldi batez bakarrik bizi gara, inperfektuak gara, ez dakigu dena, eta ez gara ahalguztidunak. Neure mugak ulerrarazten dit «bestearena». Neure izaera horixe oinarri zait elkartasunaren eta giza duintasunaren esanahi sakonera heltzeko. Norberaren mugaren apaltasunik gabe, enpatia, maitasuna edota eskuzabaltasuna harrokeriaren edo handitasun-sentimenduaren espresioa dira. Mugaren umiltasuna enpatiaren ezinbesteko baldintza da. Segidako adibideek ikaskuntza honen zentzu praktikoa ulertzen lagunduko digute:

- a) Nola haz naiteke maila pertsonalean nahiz gizaki-mailan ez baditut neure mugak aitortzen eta onartzen?
- b) Nola bizi naiteke ez badut neure izaera mugatua oinarriturik besteena ulertzen?
- c) Zergatik da beharrezkoa elkarrizketa? Elkarrizketak neure ikuspegiak osatugabeak direla ulerrarazten didalako. Zergatik dira osatugabeak? Neure izaera mugatua delako.
- d) Zergatik izan behar dut solidarioa, eskuzabala eta barkatzeko edota berradiskidetzeko prest egon? Neure izaera mugatuaren kontzientziak gogorarazten didalako askotan behar izan dudala besteak neurekin solidarioak edo eskuzabalak izan daitezen, barkatu nazaten edota neurekin berradiskidetu daitezen.
- e) Nola zabaldu diezaioket bizitza espiritualtasunari, haratago dagoenari, neure burua askitzat badut, dena neuregan eta kontrolatzen dudana horretan dudala uste badut? Neure muga jabe izateak gainditzen nauen horretara bideratzen nau, espiritualtasunaren baldintza da.

Ikaskuntza honek zein hurrengoek erakusten digute adierazitakoa baieztatzen duena ez dela hitzaldi, agindu edota metodologia hutsa. Aipatutakoa izaera mugatuaren, esker onaren, kontzientziari entzutearen, giza duintasunaren, elkarrizketaren, enpatiaren, pazientziaren edota maitasunaren esperientzia pertsonalak berresten du. Lan-eremua geure esperientzia erreala eta pertsonalizatua da.

**2. Esker onaren ikaskuntza.** Geure gainditzeko ahalmenaren gaineko kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Izaera mugatua dugu, baina gainditzeko ahalmena ere bagara, sortzeko gaitasun mugagabea. Besteak beste, maitasun-, laguntasun-, elkartasun-, eta kreatio-gaitasuna gara, baita bizitza emateko eta naturaren eta artearen edertasuna baloratzeko gaitasuna ere. Dohainez inguraturik bizi gara, eta gainditzen gaituzten opari horiek merezi dute geure esker oneko adierazpen kontzientea. Ez gara giza duintasunaren etika ulertzea helduko, baldin eta ez badugu inguratzen gaituen horretan eta inguratzen gaituztenengan giza izaeraren onena bilatzeko borondaterik.

- a) Nola lortu bizitza zoriontsua inguratzen gaituen ona baloratzeko gaitasunik gabe? Esker onak maila pertsonalean nahiz psikologikoan osatzen gaitu.
- b) Nola bizi besteekin beren akatsak eta mugak bakarrik ikusten baditugu, eta gordetzen duten on dena identifikatzeko eta eskertzeko gai ez bagara?
- c) Nola konpondu bizikidetzako edozein gatazka ez badugu ona eta elkartzen gaituena non dagoen identifikatzeko gaitasunik?
- d) Nola gainditu edozein egoera zail edo muturreko esker ona merezi duen horretan guztian oinarritzen ez banaiz?
- e) Nola eduki itxaropena mundu hobeago baten alde borrokatzeko edota elkartasunerako, borondateaz eta edertasunaz jabetu gabe?

**3. Kontzientziari entzuteko ikaskuntza.** Gizakiok etikoki jokatzera erabaki dezakegulako kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Patologiaren bat izan ezean, jakin beharrekoa da geure kontzientziak beti duela, edozein egoeratan, proposamen etiko bat. Kontzientzia-maila desberdinak ditugu, eta erantzun etikoa maila sakonenean dago. Askotan geure buruari tranpa egiten diogu kontzientziari entzuterako orduan, eta azaleko mailetan aurkitzen dugunarekin konformatzen gara. Ezinbestekoa da geure kontzientziari zuhurki entzuten ikas dezakegula jakitea.

- a) Egunean zehar hamaika aldiz erabaki behar izaten dugu modu solidarioan edo berekoian jokatzera. Erabakia hartu aurreko azken unean bakar-bakarrik gelditu ohi gara geure kontzientziarekin. Nola jardun modu etikoan geure buruari zuhurki entzun gabe?
- b) Erlazioa gara, eta, horrenbestez, gatazka. Geure bizitza tentsio-zurrunmurrua da. Nola erantzun modu etikoan bizikidetzaren erronkei, nola erdietsi berdintasuna, justizia, elkartasuna geure kontzientziari bene-benetan entzun gabe?
- c) Nola liteke atentatuak edota ankerkeria larriak egitea kontzientzia ona izanik? Kontzientziako azaleko mailetan geure taldearenganako edo kausarenganako fideltasun-sentimendua dago, eta horrek kontzientzia ona ematen digu.
- d) Nola konpondu geure kontraesan pertsonalak modu eraikitzailean kontzientziari galdetu gabe?
- e) Nola zuzendu edota eraldatu geure akatsak geure kontzientziarengana jo gabe?

**4. Giza duintasunaren ikaskuntza.** Gizaki guztiok giza duintasun berbera daukagulako kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Geure burua bitarteko gisa ikusi ordez helburu gisa ikustea ahalbidetzen digu, aukeratzeko ahalmena dau-

kagulako. Errespetua merezi dugu, eta eskubide berberak ditugu. Giza duintasunaren ikaskuntzak neure duintasun propioaren esperientziaren eta gainontzeko gizakien arteko harreman sakonaren ulertzea dakar. Giza duintasunak pertsonaren onena antzematea ahalbidetzen digu, eta bere errealitate transzendentera hurbiltzen gaitu, geure nortasunaren zentzu sakona ulertarazten digu, eta besteena errespetatzen erakusten.

- a) Neure burua nola ezagutu edota onartu giza duintasunaren neure esperientzian sakondu gabe?
- b) Nola mantendu itxaropena gizakiaren onenean giza duintasuna albora uzten duten behin betiko epaiketa moralak egiten baditugu?
- c) Nola jarri pertsonaren errespetua edozein etiketaren aurretik bere duintasuna kontuan hartzen ez badugu?
- d) Nola borrokatu arrazakeriaren, bereizketaren, desberdintasunaren edo bazterketaren kontra pertsona guztien giza duintasunaz sakon jabetu eta esperientzia hori bizi gabe?
- e) Nola ulertu bakearen, indarkeriarik ezaren, justizia sozialaren edo lagun hurkoarekiko edo behar gehiena dutenekiko elkartasunaren nagusitasun arau-emailea etengabeko giza duintasunaren ikaskuntzarik gabe?

## •Hiru ikaskuntza instrumental

Heziketa-proposamen honetako ikaskuntza instrumentalak oinarrizko hiru giza gaitasunetik datoz (komunikazioa, enpatia eta pazientzia), eta oinarrizko lau ikaskuntzen esperientziak dituzte oinarri, haietan berregiten dira. Hiru adar horietatik sortzen dira, baketsu, bizitzarako eta elkarbizitzarako heziketarekin lotutako gainerako ikaskuntza instrumental, agintzazko edo metodologiko ia guztiak. Azaleko ulerkuntzatik harago (edo sakonago) doan *plus* bati dagozkio, eta pertsonaren *plusa* ikusten laguntzen digu bizitzari eta besteekiko irekitasunean. Norberaren kontzientzian eta besteekiko harremanean pertsona nola izan jakiteko ikaskuntzak dira.

**5. Elkarrizketaren plusaren ikaskuntza.** Hobeto bizitzeko eta elkarbizitzeko elkarrizketa tresna ezinbestekoa dugulako kontzientzia izanik geure burua heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Adar horretatik sortzen dira adostasuna behar duten ikaskuntza guztiak: diplomazia, bitartekaritza, arbitrajea, elkarlana, taldeko lana, gatazka-konponketa, bizikidetzatza, negoziazioa eta abar. Komunikazio-metodologia bat baino zerbait gehiago da elkarrizketa: egia zerbaitzurako bereizketa partekatua. Norberaren egia zabaltzea du helburu. Elkarrizketatzea da geure iguripenak inoiz ez direla osoak onartzea; horregatik, entzutea du oinarri, %50ean gutxienik. Elkarrizketatzea da modu ez-arbitrarioan bereizten saiatzea norberaren barrutik, «bestearengan» konfiantza jartzea, gizakiaren alderik onenaz fidatzea eta gizakiaren alderik onenari atek irekitzea.

- a) Nola bilatu behar dut egia? Gatazken zergatiak neuregandik kanpora daudela uste dut, edo neure barruan ere konpontzen direla? Besteekin ez ezik, neure buruarekin ere elkarrizketan jardun behar dudala pentsatzen dut?
- b) Nola entzuten diot neure buruari? Zertan ez dut nik arrazoi osoa, edo zertan du beste aldeak arrazoiaren zati bat? Egoera bat aztertzean, bereizten ditut pertsonak eta ekin-tzak, edo bereizi gabe epaitzen ditut?
- c) Nola entzuten ditut besteak? Galdetu egiten dut, edo ondorioak ateratzen ditut? Bereizten ditut alde positiboa, neurekin bat datorrena, eta negatiboa, ez datorrena? Bestearen eskaera esplizituei bakarrik begiratzen diet (jarrerak), edo ezkutuko eskariei ere (interesak) erantzuten diet?

d) Nola ematen dut jakitera barruan dudana? Neure ikuspegiaren ardatz nagusiak azaltzen ditut, ala jarrera itxi bati atxikitzen natzaio? Epaitu eta etiketatu egiten ditut besteak, erantzun egiten diet, edo haien jarrerak ulertzen saiatzen naiz, gero neurea ulerrarazteko?

e) Nola adierazten ditut neure jarrerak? Nola saiatzen naiz adostasuna lortzen? Elkarrekin zer egin dezakegun galdetzen diot neure buruari eta oraingo eta gerorako konponbidea bilatzen saiatzen naiz, edo iraganarekin egoskortzen naiz, errudunaren bila beti? Aukerak bilatzen ditut, edo oztopoak bakarrik ikusten ditut?

**6. Enpatiaren plusaren ikaskuntza.** Gizakion elkartasun-gaitasunaren eta -potenzialaren kontzientzia izanik geure burua heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Bestearen lekuan jartzeko teknika bat erabiltzen ikastea baino zerbait gehiago da enpatia: besteez kezkatzea eta arduratzea da, besteen sufrimendua geurea balitz bezala sentitzea, nolabait, sufrimenduaren eragileei ekiteko. Berezko gaitasuna dugu enpatia eta gara dezakegu, hau da, zuzenean mintzo zaigu. Benetakotasuna eta barne-elkarrizketa eskatzen ditu, eta lau elkartasun-kausa handirekin du lotura: sufritzen duenari laguntzea, berdintasunaren alde borrokatzea, justiziarekiko konpromisoa eta bakearen aldeko ekimena. Enpatiaren *plusak* hobeak egiten gaitu, apaltasunera eramaten gaitu eta; sendatu egiten gaitu, afektibotasuna ematen baitigu, eta zentzua geure bizitzari; mundua hobetu egiten du, geure mundua hobetzen duelako, eta besteekiko atxikimendua sortzen digu, elkartasunaren humanizazioa eramaten gaituela, giza duintasunean.

a) Nola jakin zer den altruismoa, elkartasuna edo errukia neure enpatia-gaitasunaz jabetu gabe?

b) Nola jakin besteekin elkarbizitzen, edo nola ezagutu besteak, berezkoa dugun gaitasun hori garatu gabe?

c) Nola egin mundu hobea besteez (behartsuenez, baztertuez, bidegabeki tratatuez...) arduratu gabe?

d) Nola ulertu eta erabili laguntza, berdintasuna, justizia, bakea, indarkeriarik eza, berradiskidetzea eta abar bezalako kontzeptuak enpatiaren *plusaren* esperientziarik gabe?

e) Nola garatu neure gizatasuna, nola aurkitu bizitzaren zentzua, nola bizi enpatiaren dohaintzarik gabe?

**7. Pazientziaren plusaren ikaskuntza.** Desafio, zailtasun eta sufrimendu ez-patologikoei konstruktiboki ekiteko gizakiak daukan tresna nagusia pazientzia delako kontzientzia izanik geure burua heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Pazientziaren *plusa* atsekabeari aurre egiteko eustea da (pazientzia pasiboa) eta irautea (pazientzia aktiboa). Bizitzako alderdi ia guztietan egin dezakegu porrot pazientziaz ongi horniturik jarduten ez bagara. Luzaroan itxaroten jakitea eskatzen du pazientziak, eta itxaropenez irautea. Egun nahiko baztertuak dauden baina atsekabeari aurre egiteko eta bizitzan aurrera egiteko ezinbestekoak diren hainbat balio sustatzea eskatzen du pazientziaren *plusak*: pazientzia pasiboari dagokionez, lasaitasuna, zintzotasuna eta duintasuna eraiki, itxaron, jasan edo sufritzen jakiteko; aktiboari dagokionez, berriz, irautea, jarraitzea, ekitea, pairamena, erregularitasuna, tinkotasuna eta abar.

a) Nola jakin zer aukera eta gaitasun ditudan ez badaukat pairamenik eta jarraitutasunik egiten dudan horretan?

b) Nola eraiki proiekturen bat, desafioren bat gainditu edo lorpenen bat iritsi pazientzia aktibo eta pasibo apur bat gabe?

c) Nola egin aurre egun eguneroko arazoei neure pazientziarik eza, asaldura eta jarraitutasunik eza prozesu batean jorrazteko gauza ez banaiz?

d) Nola eraldatu sufrimendua itxarote-prozesu jarraiki eta iraunkortasun itxaropentsuko prozesu baten bidez ez bada?

e) Nola elkarbizi neure hurbileneoekin geure izaera mugatuaz dudana ikuspegia ez bada iraunkorra, edo nola hobetu mundua eta konpondu gatazkak alderdi positiboak bilatzeko neure erabakia ez bada jarraitua?

### •Funtsezko ikaskuntza bat

Heziketa-proposamen hau 7+1 ikaskuntzak osatzen dute, eta azkenekoa (maitasunarena) da oinarritzkoa, aipatu dugun guztia hartzen eta estaltzen baitu, eta zentzua ematen. Zergatian, prozesuan eta emaitzan dago maitasuna; bizitzeko eta elkarbizitzeko dohaina eta giltzarria da. Proposamen honetako lehenbiziko zazpi ikaskuntzek bidea irekitzen diote zortzigarrenari: (1) izaera mugatuak, maitasunak behar duen irekiera erakusten digu; (2) esker onak, euskarri duen konfiantza; (3) kontzientziari entzuteak, maitasunarekin dugun gatazka menderatzen; (4) giza duintasunak, pertsonarenganako errespetuaren baldintzarik eza; (5) elkarriketaren *plusak*, maitasunaren komunikazioko benetakotasuna; (6) enpatiaren *plusak*, besteei emate desinteresatua, eta (7) pazientziaren *plusak*, jarraitzen erakusten digu, geure dorpetasuna gorabehera. Funtsezko giltzarria dugu maitasuna pertsona izaten ikasteko eta hezteko, prozesu honen sustrai eta fruitu; oro biltzen duen eta ooren oinarri den balio goren batekin lotzen gaitu.

**8. Maitasunaren ikaskuntza.** Maitasuna gu besteei doan eskaintzeko bizitzak ematen digun dohaina delako kontzientzia izanik geure burua heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Ahalik eta onik handiena egitea xede duen entregatze desinteresatuaren jabe egiten gaitu. Maitasuna sentimendua baino zerbait gehiago dela ikastea eskatzen du: bihotza zabaltzeko esperientzia da. Maitasuna ez da maite dugunaz jabetzea; doakotasun-esperientzia da. Maitasuna ez da hegoak ebakitzea, maite dugun horri hegoak ematea baizik. Pertsonen arteko maitasuna da bestea beste legez sustatzea. Ikaskuntza honen garapenak erakusten digu maitasuna dela garrantzitsuena, besteak beste ezinegon existentziala gainditzeko aukera ematen digulako: maitasunaren konfiantzak heriotzarekiko beldurra gainditu egiten du edo, bestela, beldur horrek estali egiten du bizitzaren dohaina. Maitasunaren ikaskuntza da ohartzea gizakion gailurra besteei ahalik eta onik handiena egitea dela, dohainik.

a) Nola ulertu bizitzaren *plusa*, pertsona, bizikidetzak, heziketa edo elkartasuna ez bagara ohartzen maitasuna dela garrantzizkoena, hark duela lehentasuna beste guztiaren gainetik?

b) Nola bizi hurbileneoekin ohartu gabe ordainik gabe maitatzea dela maitasuna, baita unerik gozoenean ez daudenean ere?

c) Nola erantzun bizitzaren zentzuari buruzko galderari, edo nola bilatu bizitzaren zentzua dohain horretan, maitasunean, murgildu gabe?

d) Nola borrokatu justiziaren alde lagun hurkoarenganako maitasuna oinarri duen pertsonaren eta haren duintasunaren balio gorenarekin bat egin gabe?

e) Nola elkarriketatu, barkatu edo berradiskidetu maitasunaren besterentze fidakor, doako eta baldintzarik gabearekin bat egin gabe?

### 3.3. Zergatik ikaskuntza hauek, eta ez beste batzuk

Zentzuzko galdera dirudi: «Zergatik hautatu ditugu ikaskuntza hauek, eta ez beste batzuk?». Ez Baketik-ek, ez Izan Proposamena idatzi duen taldeak, ez dute uste hitzez hitz bere horretan hartu beharrekoak direnik proposamenak. Lehendik ere esan dugunez, iradokizun irekiak dira, eta hobetu, aldatu, murriztu edo handitu egin daitezke. Nolanahi dela ere, gaia aztertu, jo-

rratu eta hartaz hausnartu ondoren, ziur gara zortzi ikaskuntza nagusi eta bizipenezko hauek heziketa-proposamen integrala eratzen dutela. Hona hemen geure uste horren zergatietako batzuk:

#### •Argitzen dute

Pertsona bakoitzak bere barnean antzeman ditzakeen ikaskuntzak dira. Ez dira kanpoko ikasgaiak edo aginduak, kanpotik bakarrik datozkigunak. Dagoeneko geure barruan dauden errealitateak dira. Hauekin ez dugu ezer irakasten edo asmatzen, pertsona bakoitzarengan dagoena argitzen dugu.

#### •Gainerakoak sortzen dituzte

Margolanetan oinarriko koloreen funtzio bera bete dezakete, gainerakoei oinarria ematen dietelako. Nola ulertu bakearen, elkartasunaren, enpatiaren, errespetuaren, berradiskidetzaren eta abarren beharra horrek ez badu oinarri gisa mugatu sentitzearen, gainditzen nauenaren, neure kontzientziaren edo neure giza duintasunaren esperientzia, edo neure elkarriketa-, enpatia- eta pazientzia-ahalmenak edo azkenik neure maitasun bizipena?

#### •Partekagarriak dira

Guztiok parteka ditzakegu. Ikaskuntza horietan, gizakiaren berezkoena dena dago. Ez dira bateraezinak norberaren edo nortasunekin: erlijiosoak, kulturalak edo uste sendoenak.

#### •Iraunkorrek dira

Ez dira une bakar batean ikasten, ez dira agortzen. Behin eta berriz eurengana itzuli behar gara. Bere irakaskuntzak esperientziarekin egiten du aurrera. Bizipen berri bakoitzak ikaskuntza horietara eta norberaren buruarekin eta besteekin hobeto bizitzeko esperientziara, itxaropenera eta bide berrietara itzultzea ahalbidetzen digu.

#### •Orokorrak eta zehatzak dira

Orokorrak dira, haiei lotutako beste ikaskuntza batzuen serieburu gisara jarduten baita haietako bakoitza, eta hezkuntza-alor oso bat hartzen du; zehatzak dira, ikaskuntza horiek bizipen pertsonalizatu bihurtzean sakon sentitzen baitugu geure barruan pertsona izatearen zentzua aurkitzearen esperientzia.

## 4. Izan Proposamenaren eduki materiala

Izan Proposamenaren kontzeptu-edukiaren laburpena ezagutu ondoren, ondorengo atal-letan eduki zehatza eta materiala azalduko ditugu.

### 4.1. Izan Proposamenaren egitura orokorra eta taldea

Bi alderdi ondo bereizirik ditu Izan Proposamenak, material eta helburu berezituarekin: oinarri teorikoak eta proposamen praktikoak. Proposamena egin duen lan-taldea lau pertsonak osatzen dute.

#### •Esparru teorikoa

Gu geu heztea du xede. Zortzi ikaskuntzen garapen teorikoa egiten du, eta pertsona izateak zer esan nahi duen eta zer ondorio dakartzan sakonago jorratu nahi duen ororentzat balio du, edo trebatu nahi dutenentzat, heziketaren edozein alderdiri ekin behar diolako bere bizitzan. Zati honen edukia teorikoa da, batik bat, baina baditu ikaskuntza bakoitza sakon eta pertsonalki bizitzeko ariketa praktikoaren proposamenak. Hartara, Izan Proposamenaren ulerkuntza

intelektuala bizipen bidezko ulerkuntzarekin osatu nahi dugu. *Pertsona izaten hezi* liburuan duzue esparru teoriko osoa.

### •Aplikazio praktikoak

Hezkuntza dute helburua, eta ikasturteka antolatutako 250 iradokizun praktikoren bidez egokitzen dituzte hezkuntza-alorrera zortzi ikaskuntzak. Irakasleentzat, familientzat eta heziketarekin era batera edo bestera lotutako jendearentzat da baliagarria, batez ere, material hau. CD batean duzue aplikazio praktikoek bigarren zati hau, eta Baketik-en web gunean ere eskuragarri dago.

### •Erredakzio-taldea

Izan Proposamena Baketik-ek bultzatutako eta egindako lana da, eta erredakzio-taldea izan du. Jonan Fernandez izan da eremu teorikoaren egilea, aplikazio praktikoena Mertxe Amondarain eta, eurekin batera, Marina Goikoetxeak eta Ana Urdangarinek proposamenaren erredakzio- eta laguntza-taldean hartu dute parte.

## 4.2. Euskarri materialak

Hiru euskarri material ditu Izan Proposamenak: koaderno hau, *Pertsona izaten hezi* liburua, eta CDa (edo web gunea).

### •Aurkezpen-koaderno

Koaderno honek Izan Proposamenaren aurkezpen orokorra eskaintzen du. Paperean argitaratuko da, eta aipatutako web gunearen bidez ere eskura duzue.

### •*Pertsona izaten hezi* liburua

Liburu honen aurkibidean dagoen aurkezpenean «pertsone» terminoaren definizioari buruzko hausnarketa duzue, kapitulu bana zortzi ikaskuntzetako bakoitzeko, eta epilogo. Azalpenak egitura bera du ikaskuntza bakoitzaren kapituluan: (1) zer esan nahi duen; (2) zer dakarren; (3) sakon nola bizi; eta (4) ariketa praktikoak

### •CDa edo web gunea

Era askotako aplikazio praktikoak ditu ikaskuntza bakoitzerako, ikasturteka antolatua. Ikasturte bakoitzerako egokitzapenak atal hauek ditu:

- Aurkezpena.
- A. Abiapuntuak.
  - a.1. Sarrera.
  - a.2. Helburuak.
  - a.3. Eduki-ardatzak.
  - a.4. Euskarri didaktiko nagusia.
- B. Iradokizun praktikoak.
  - b.1. Ikaskuntza hau programatuta aplikatzeko iradokizunak.
- Eranskinak.
  - 1. eranskina. Edozein ikasgaitarako edo eskola-jarduneko unetarako iradokizunak.
  - 2. eranskina. Familiekin partekatzeko iradokizunak.
  - 3. eranskina. Familientzat gutun-eredua.
  - 4. eranskina. Hainbat erabileratarako eta familiekin partekatzeko powerpoint-a.
  - 5. eranskina. Ebaluazioa.

### 4.3. Izan Proposamenaren eragiketa-ezaugarriak

Izan Proposamenaren ezaugarriak eragingarritasunaren eta funtzionamenduaren aldetik ezagutzea ere komeni da. Horregatik, bost ataletan laburbildu ditugu ezaugarri horiek: (1) programazioa, (2) ikasturte bakoitzerako prozesua eta materiala, (3) adibide bat, (4) aplikazio orokorreko eskema, eta (4) Izan Proposamenaren dinamizazioa.

#### ·Programazioa

Izan Proposamenak iradokitzen duen ikaskuntzak aplikatzeko programak 18 urte arterako hezkuntza-prozesu osoa hartzen du. Hori da hasierako iradokizuna, baina proposamen malgua da, beste aukera batzuei irekia: hezitzaileak, klaustroak edo familiak beste programazio bat aplikatzea erabaki dezakete, eskaintzen dugun material didaktikoak horretarako aukera aise ematen baitu. Hona hemen eskema:

<b>Lehen Hezkuntza</b>	2. mailan	·1, 2, 3 eta 4 ikaskuntzak
	3. mailan	·5, 6, 7 eta 8 ikaskuntzak
	5. mailan	·1, 2, 3 eta 4 ikaskuntzak
	6. mailan	·5, 6, 7 eta 8 ikaskuntzak
<b>Bigarren Hezkuntza</b>	2. mailan	·1, 2, 3 eta 4 ikaskuntzak
	3. mailan	·5, 6, 7 eta 8 ikaskuntzak
<b>Batxilergoa</b>	1. mailan	·1, 2, 3 eta 4 ikaskuntzak
	2. mailan	·5, 6, 7 eta 8 ikaskuntzak

Koadro hau abiapuntu hartuta, Izan Proposamenaren programazio-iradokizuneko zenbait ezaugarri azpimarratuko ditugu:

**-Proposamen zirkularra.** Lehen Hezkuntzan hasi, Bigarrengoan jarraitu eta Batxilergora iritsi arte ziklo bakoitzean zortzi ikaskuntzak behin gutxienez erabiltzea da irizpidea.

**-Lau ikaskuntza ikasturteko.** Ikasturte bakoitzean lau ikaskuntzari dagozkien lau modulu didaktiko jorratzen dira. Beraz, elkarren segidako bi ikasturtetan jorratuko dira zortzi ikaskuntzak.

**-Tarteko ikasturte bat.** Zortzi ikaskuntzak amaitu eta gero, ikasturte bateko etena egingo dugu, beste esperientzia batzuei lekua egiteko. Gero ekingo diegu berriro, haien ahalmen didaktikoa areagotzera, adin-tarte bakoitzari egokitutako baliabide didaktiko berriekin.

**-Ikaskuntza bakoitzeko, 4-6 aste.** Ikasturte bakoitzean lau ikaskuntza jorratuko direnez, haietako bakoitzerako aplikazio praktikoko iradokizunak 4-6 asteko eperako daude pentsatuak, tutoretza-orduetan edo etikakoetan emateko. Hemen ere aukera dago ordu horietan beste gai batzuk tartekatzeke.

**-Aplikazio ez-programatua.** Tutoretza- edo etika-orduetan ez ezik, edozein ikasgaitan edo eskolako zein familiako zeinahi egoeratan ere aplikatu daiteke material hau.

## ·Ikasturte bakoitzerako prozesua eta materiala

Hona hemen ikasturte bakoitzeko ikaskuntza bakoitzerako dagoen materiala eta jarraitu beharreko prozesua:

**-Plangintza.** Lehenik eta behin, ikaskuntza bakoitzeko 4-6 asteko lan-egutegia aurreikusi behar da, tutoretzako edo etikako orduak kontuan izanda. Horretarako klaustroaren eta familien laguntza eskuratzen bada, askoz hobeto, ezinbestekoa ez bada ere.

**-Esparru teorikoa.** Ikaskuntza bakoitzak esparru teoriko bat du, eta *Pertsona izaten hezi* liburuko kapitulu batean ageri da. Derrigor irakurri beharrekoa da ikasgelan lanari ekin aurretik, edo, bestela, proposamen honi buruzko trebakuntza-saioren batean jardutea.

**-Euskarri didaktiko nagusia.** Ikasturte bakoitzerako, ikaskuntza bakoitzak euskarri didaktiko nagusi bat du: film bat, testu bat, joko bat, ipuin bat, kontakizun bat, poesia bat, kantu bat, albiste bat... Euskarri hau da ikaskuntzaren jarduera didaktikoa-ren euskarria.

**-Zenbait ariketa.** Hainbat ariketa (5 eta 8 bitarte ikaskuntza bakoitzeko) iradokitzen ditugu euskarri honetarako, eta aurreikusitako asteetan aplikatu (edo egokitu) ditzake hezitzaileak. Aplikazio xumeak dituzte beti oinarri ariketa horiek.

**-Gehigarriak.** Beste material batzuk ere eskaintzen ditugu, gehigarri gisara: (1) aplikazio-iradokizunak, edozein ikasturte edo eskola-jarduneko unetan (2) familiekin partekatze iradokizunak, (3) familientzat gutun-eredua, (4) powerpoint-eredu bat, zenbait erabilertarako eta familiekin partekatze iradokizunak, eta (5) ebaluazio-eredua.

## ·Adibide bat

Imajina dezagun DBHko bigarren mailan ari den irakasle bat, ikasturtearen hasieran, izaera mugatuaren ikaskuntza garatzeko prest. Kasu honetan, euskarri didaktiko nagusia *Pequeña Miss Sunshine* filma da. Hori oinarri hartuta, gai bat eta zortzi jarduera-proposamen eskaintzen dira. Hiru kontzeptu jorratzea proposatzen da: izaera mugatua, desberdintasuna, eta porrota vs arrakasta. Hauek dira zortzi jarduera-proposamenak:

- Lehena. Filma ikustea.
- Bigarrena. Pertsonaiak deskribatzeko lan pertsonala.
- Hirugarrena. Aurrera egiten duen galtzaile-talde horri buruzko eztabaida.
- Laugarrena. Hausnarketa, isilpean, geure izaera mugatuaz.
- Bosgarrena. Galdera-sorta, besteen mugak zein erraz ikusten ditugun aztertze.
- Seigarrena. Filma gogoratzea. Zergatik lagundu behar diot inori? Mila aldiz behar ditudalako besteak; bakarrik ezin dut.
- Zazpigarrena. Ghandiren esaldi bati buruz idatzitako ondorio pertsonalak.
- Zortzigarrena. Taldeko ondorioak.

## ·Izan Proposamenaren aplikazio orokorreko eskema

Laburpen gisara, eta aurreko guztia azaldu ondoren, koadro honetan duzue Izan Propo-

samenaren aplikazio orokorreko eskema. Hor dituzue zehaztuta ikaskuntza-programazioa, ikas-  
turteka, eta haietako bakoitzean erabil daitezkeen euskarri didaktiko nagusiak.

	1. ikaskuntza Izaera mugatua	2. ikaskuntza Esker ona	3. ikaskuntza Kontzientziari entzutea	4. ikaskuntza Giza duintasuna	5. ikaskuntza Elkarrizketaren plusa	6. ikaskuntza Enpatiaren plusa	7. ikaskuntza Pazientziaren plusa	8. ikaskuntza Maitasuna
<b>Lehen zatia</b>	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa	Eremu teorikoa
<b>Bigarren zatia</b>	Aplikazioak	Aplikazioak	Aplikazioak	Aplikazioak	Aplikazioak	Aplikazioak	Aplikazioak	Aplikazioak
Lehen Hezkuntza 2. maila	·Itsuen jolasa	·Filma: <i>El libro de la Selva</i>	·Filma : <i>Toy Story</i>	·Ipuina: <i>Desberdinen taldea</i>				
Lehen Hezkuntza 3. maila					·Elkarrizketa- jolasak	·Filma: <i>ET</i>	·Ipuina: <i>Elurretako erregina</i>	·Ipuina: <i>Ezustekoa</i>
Lehen Hezkuntza 5. maila	·Galderak: <i>Dónde se guardan los sueños</i>	·Filma: <i>Binta y la gran idea</i>	·Ipuina: <i>Lagunak</i>	·Sadako Sasakiren biografia				
Lehen Hezkuntza 6. maila					·Filma: <i>Sang Woo y su abuela</i>	·Filma: <i>Voces inocentes</i>	·Filma: <i>Billy Elliot</i>	·Filma: <i>Up</i>
Bigarren Hezkuntza 2. maila	·Filma: Pequeña Miss Sunshine	·Kanta: <i>Ella</i>	·Testua: <i>Zalantza moralak</i>	·Rosa Park-en testua				
Bigarren Hezkuntza 3. maila					·Testua: <i>Gizakion ahotsaren ospakizuna</i>	·Elkartasunari buruzko bi testu	·Filma: <i>La vida es bella</i>	·Filma: <i>Las llaves de casa</i>
Batzilergoa 1. maila	·Kanta: <i>A tientas</i>	·Kanta: <i>Gracias a la vida</i>	·Filma: <i>Doce hombres sin piedad</i>	·Filma: <i>El hombre elefante</i>				
Batzilergoa 2. maila					·Filma: <i>En tierra de nadie</i>	·Filma: <i>La espalda del mundo</i>	·Gandhiren biografia	·Kanta: <i>Txoriak txori</i>
<b>Eranskinak</b>	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak	1, 2, 3, 4 eta 5 eranskinak

\*Ikaskuntza eta ikasturte bakoitzerako euskarri didaktikoak ez dira behin betikoak, eta, haien ordean, helburu bererako balio duen beste batzuk sar daitezke, pixkanaka, edo haiekin osatu.

## ·Izan Proposamenaren dinamizazioa

Baketik-en asmoa heziketa-proposamen hoen dinamizazioa epe ertainean eta luzean sus-  
tatzea da. Hona hemen dinamizazio horren elementurik nagusienak:

**-Aurkezpena.** Bi eratako jarduerak eskatzen ditu heziketa-proposamen honen aurkezpenak (unean unekoa, bata; iraunkorra, bestea):

-Proposamenaren lehen aurkezpena 2010eko udaberrian egingo da (hitzaldi bat martxoaren 13an; ikastaroa, maiatzaren 8an). Arantzazun egingo dira biak ere, eta irakasleak, gurasoak eta gaiarekin interesa duen edonor dago haietara gonbidatua.

-Eskualdeetan eta ikastetxeetan hainbat aurkezpen egingo ditugu, luzaroan, ikastetxeen, hezitzaileen edo guraso-elkarteen eskariaren arabera.

**-Sare baten sorrera.** Heziketa-proposamen hau aplikatzeko eta garatzeko prest dauden ikastetxe-, irakasle- eta familia-sare bat sortuko du Baketik-ek. Hasieran, ez da helburuan sartzen sareak halako kide-kopuru bat izatea, eta garrantzikoena da esperientzia abiaraztea, ikaskuntza horiek martxan jarrita proposamena sakontzeko eta hobetzeko ondorioak ateratzea eta gauzak ikastea. Sarean koordinatuko, partekatuko eta trukatuko dira esperientziak, zalantzak eta iradokizunak.

**-Urtean behin, jardunaldi bat.** Urtero, topaketa-, hausnarketa- eta lan-jardunaldi ireki bat egingo du Baketik-ek, eta sareko kide guztiak eta beste hainbat irakasle, familia edo ikastetxe ere gonbidatuko ditu. Iradokizun eta esperientzia berriak, zailtasunak eta gainerakoak partekatzeko une egokia izango da urteroko jardunaldia.

**-Berariazko ikastaroak eta laguntza-material berriak.** Baketik-ek berariazko ikastaro-programa bat eskainiko die irakasle, familiei eta ikastetxeei Izan Proposamena aplikatzeko. Horrez gain, material teoriko eta praktikoa ere prestatuko ditu, Proposamenaren edukia sendotzeko eta hobetzeko eta, sareko kideen proposamenen eta iradokizunen arabera, aplikatzeko.

## 5. Izan Proposamenaren ezaugarri bereziak

Izan Proposamenaren eduki zehatzen deskribapena egin dugu honaino. Bukaerarako utzi ditugu bestelako alderdi batzuk, zehaztasun lausoagokoak baina garrantzitsuak proposamen honen zentzua eta funtzionamendua ulertzeko.

### 5.1. Ez da aurrez prestatutako platera

Gai ugari buruzko unitate didaktikoak eta gidak daude, metodologia, dinamika eta baliabide zehatz-zehatzekin, azken xehetasuneraino prestatuak. Hezitzaileak materiala hartu, jarraibide-liburua irakurri eta urratsez urrats aplikatu, besterik ez du egin behar. Ez dugu ezer material horien aurka, baina beste era batekoa duzue hau. Heziketa-proposamen edo iradokizun irekia da, ez da unitate edo gidaliburu itxia. Irakasleak ez du dena eginda aurkituko, aurrez prestatutako platera balitz bezala. Oinarri batzuk aurkituko ditu, zenbait osagai, eta, gero, ezinbestekoa izango da haren partaidetza eta lan aktiboa eta sortzailea.

Hortaz, proposamen honek eskatzen du irakaslea aktore eta subjektu aktibo bihurtzea. Bizitzeko eta elkarbizitzeko pedagogia bat prestatzeko tresna-kutxa bat da Izan Proposamena. Tresnak hor daude, baina ez produktu amaitua. Iradoki nahi duena, berriz, ezin da adierazi teknika baten aplikazio mimetiko hutsarekin: bizi-esperientzia bat azaldu nahi du, eta hezitzailearen bizipenak ezinbestekoak dira horretarako. Heziketa-proposamen honek ez du behar bere edukia transmititzailerik/ikuslerik, subjektua/aktorea baizik.

Ezaugarri hori dela-eta, hezitzaileak, klaustroak edo familiak papera eta boligrafoa hartu beharko dute, edo teklatura eta ordenagailua, eta, proposatzen dituen iradokizunetatik abiatuta, aplikazio didaktiko zehatza prestatu, garatu behar den taldeari egokitua betiere.

## 5.2. Lehenbizi, bizi egin behar da sustatu nahi den hori

Proposamen hau ez da, bestalde, buruz ikasteko eta beste edozein ikasgai bezala (hizkuntza, matematika...) irakasteko materiala. Bere heziketa-esparruan proposamen hau erabili nahi duen irakasleak bizi egin behar du, lehenbizi, iradokitzen duen ikaskuntza-esperientzia. Edukia ikustean ohartuko zaretenez, ez du ezer berririk irakasten; pertsona bakoitzaren alderik gizatiarraren esperientzia azaleratzen du. Nahitaez, bizipen hori besteei azaltzeko, lehenbizi bizi egin behar da.

Pertsona izaten ikasteko eta hezteko ikaskuntza hauek ez dira ikaslearentzat bakarrik. Lehenik eta behin, hezitzailearentzat dira, hots, irakasleentzat eta familientzat. Prest egon beharra dago proposamenaren bizi-esperientzian murgiltzeko haren edukia azaltzeko. Ez du espezializiorik eskatzen, edo trebakuntza akademiko osagarri; aski da norberaren buruan esperimentatzeko borondatea. Segur aski, zailtasunen bat ekarriko du ezaugarri horrek, baina pizgarriren bat ere bai, bere bizitzarako eta lanbiderako ikaskuntza praktikoak eskura baititzake hezitzaileak.

Ezaugarri hori dela-eta, heziketa-proposamen hau martxan jarri aurretik ezagutu egin behar du hezitzaileak. Horretarako, gomendatzen dugu proposamena aplikatu aurretik *Pertsona izaten hezi* liburua irakurtzea edota Izan Proposamenari buruz Baketik-ek eskaintzen dituen trebakuntza-ikastaroetan parte hartzea.

## 5.3. Ez da aplikazio programaturako bakarrik

Lehendik ere aipatu dugu, baina errepikatu egingo dugu, garrantzia azpimarratzeko. Hezkuntza-prozesu osoan da aplikagarria proposamen hau, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora arte, batez ere tutoretza- edo etika-orduetan. Alabaina, irakasleak ikaskuntza hauetan murgildu nahi badu eta, gainera, haren egile eta subjektu izan nahi badu, edozein unetan eta ikasgaitan aplika daitekeela ikusiko du, eta programaturako ikasgaia higitu beharrean sendotu eta osatu egiten duela.

Ezaugarri hori dela-eta, eskolako jarduerari erne egon behar du irakasleak, eskolako edo ikasgelako edozein gertakari, edozein gai edo ikasgai izan baitaiteke aukera egokia haren heziketa-balioan sakontzeko, proposamen honetako ikaskuntzen ikuspegitik.

## 5.4. Azken batean, «%50eko hitzarmena» behar du

Ohartzen gara hezitzailearen zailtasunez: alde batetik, irakaskuntzak dena jorratzea eta konpontzea nahi izaten dugu; bestetik, irakasleak denbora eta baliabide gutxi izan ohi du, helburu batzuk bete behar ditu, heziketa-eskaintza gehigarri asko ditu, bere mugak ere baditu, ikasleek ere bai, eta ikasle bakoitza bakarra da, bere biografia pertsonala eta familiarra du...

Badakigu, azken batean, proposamen hau ez datorrela bat egungo egoerarekin, haizea kontra duela. Ohartzen gara horrez guztiaz, baina horrelakoxea da, eta bere balio eraldatzailea horretan datza hain zuzen ere, itxura batean «normala» dirudienaren kontrako noranzkoan arraun egitean. Hezitzaileak partaide izan nahi badu du zentzua proposamenak; bestela, ez. Iradokitzen duen esperientzia bizi egin behar du lehenbizi, hezkuntzako edozein alorretan aplikatu aurretik.

Uste sendoa eta konpromisoa ere eskatzen ditu heziketa-proposamen honek; heziketa-eren errutinatik haraxeago joateko eta berritzeko gogoia eskatzen du. Geure bizitza pertsonaleko eta besteekiko harremanetako desafioen aurrean jarrera positiboa hartzea da, izan ere, geure bizitzako eginkizun nagusia. Desafio horri ekiteko moduak baldintzatuko du egiten dugun guztia: ikasketak, proiektuak, zorientasuna eta abar. Bizitzeko eta elkarbizitzeko baliabide propioak izatea eta pertsona izaten ikastea da, izan ere, beste guztiaren oinarria.

Heziketak badu horretan zer eginik. Ez du, seguruenik, dena konpontzeko asmorik, baina bai bizitza eta elkarbizitza hobete baterako giroa sortzeko itxaropena. Horretarako, hezitzailearen

konpromisoa behar du, bere muga eta dohainen esperientzia lehen heziketa-balio bihurtzea. Hobeto bizitzen eta elkarbizitzen irakasteko hobeto bizitzen eta elkarbizitzen ikasi behar du hezitzaileak. Horra izan proposamenaren gonbita.

Filosofia honen funtsean, «%50eko hitzarmena» deritzon ideia dago. Baketik-ek dokumentazio honekin eskaintzen duena lanaren %50 da. Badakigu ekarri osatugabea dela. Gainerako %50a hezitzailearen, klaustroaren eta familien esku dago, proposamen honen egilekide eta subjektu aktibo baitira. Hemen, tresna batzuk aurkezten dizkizuegu, baina azken emaitza hezitzailearen esku dago, hark erabaki behar baitu —bere konpromisoaz, bokazioaz, intuizioaz eta sormenez— aplikazio didaktikoak izango duen azken itxura.

Gandiaga Topagunea  
Arantzazu  
20567 Oñati

Tel.: 943-251005  
Fax: 943-251003  
e-mail: [info@baketik.org](mailto:info@baketik.org)

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

---

**izan**

Proposamena  
**Pertsona** izaten hezteko  
zortzi ikaskuntza

**baketik**<sup>arantzazu</sup>